



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte”

2021eko urtarrilaren 9a
Jaunaren Bataioa (B)

Marko 1, 7-11

Honela hots egiten zuen: “Nire ondoren dator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte”.

Egun haietako batean, Jesus etorri zen Galileako Nazaretetik, eta Joanez bataiatu egin zuen Jordanen. Jesusek, uretatik ateratzerakoan, zerua urratzen ikusi zuen eta Espiritua, uso-tankeran, beregana jaisten. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: “Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin”.

Zu neure Seme maitez zara: zeugan dot nire atsegiña. Jesus, Bari ona iragartzen asten denean, Espirituaren bitartez Aitaren babesa artzen dau Jesusek.

JESUSEN ESPIRITUA

Jose Antonio Pagola

Judu-herriak krisialdi handia bizi zuen une batean agertu zen Jesus Galilean. Denbora asko zeraman Jainkoaren urruntasuna sentituz. Zerua «itxia» zegoen. Ematen zuen ezin ikusizko murrutik antzeko batek eragozten ziola Jainkoarekin komunikatzea. Inor ez zen gai haren ahotsa entzuteko. Ez zuten jada profetarik. Ezin zuen inork hitz egiten Espirituak eraginda.

Hauxe zuten gauzarik gogorrena: Jainkoa beraietaz ahaztu egin zela uste izatea. Israel herriaren arazo Jainkoari bost axola ote zitzaion. Zergatik zegoen ezkutuan? Zergatik hain urrun? Apika, jende askok zuen gogoan antzinako profeta baten otoitz hau: «Ai zerua urratu bazeneza eta jaitsiko bazina!»

Markosen ebanjelioa entzun zuten lehenengo kristauak harriturik geldituko ziren, noski. Markosek kontatzen duenez, Jordan ibaiko uretatik irtetean, bataioa hartu ondoren, Jesusek «**zerua urratzen ikusi zuen**» eta «**bere gainera Jainkoaren Espiritua jaitsi zela**» sentitu zuen. Azkenean, posible zen Jainkoarekin topo egitea. Bazen lurtean Jainkoaren Espirituak hartua zuen gizon bat. Jesusen zeritzan eta Nazaretetik zetorren.

Jesusen gainera jaitsi den Espiritu hori bizia kreaden duen Jainkoaren hatsa da, bizidunak berritzen eta sendatzen dituen, guztia eraldatzen duen maitasuna. Lehen kristauak ez zuten nahi Bataiatzailearen ikasletzat har zitzaten. Jesusen Espirituak bataiatutzat zuten beren burua.

Espiritu hori gabe dena itzalia da kristautasuna. Galdu da Jainkoarekiko konfiantza. Fedea ahuldua. Iraganeko pertsona huts bilakatzen da Jesus, bizirik gabeko letra bihurtzen da Ebanjelioa. Maitasuna hoztu, eta Eliza erakunde erlijioso bat gehiago baizik ez.

Jesusen Espiriturik gabe, askatasuna itoa da, poza itzalia, ospakizuna ohitura huts bihurtua, elkartasuna hautsia. Espiriturik gabe, misioa ahaztu egiten da, esperantza hil, beldurra handitu, Jesusi jarraitzea erdipurdiko gauza erlijioso bihurtzen da.

Gure arazorik nagusia Jesus ahaztu izana da, haren Espirituaz ez arduratzea. Oker handia da antolatzaiekin, lanarekin, debozioarekin edo mila eratako estrategiarekin lortu nahi izatea Espirituagandik bakarrik jaio daitekeen hura. Sustraietara itzuli beharra dugu, Ebanjelioa bere freskotasan eta egiatasun osoan berreskuratu beharra, Jesusen Espirituan bataiatu beharra.

Ez dezagula engaina geure burua. Espiritu honi ez badiogu uzten biziberritu eta birsortu gaitzan, kristauak ez dugu izango garrantziko inolako ekarpenik gaur egungo gizartearentzat, hain barnetasun gabea eta maitasun solidariorako hain gaitasun gabea eta hain esperantza-beharrean den honentzat.